

# STARTINNOVA: FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat agente behar izango dugu. Hasteko, produktu globala denez, ez da produktua hemen bertan ekoitziko. Deslokalizazioaren bitartez, planetako zenbait herrialdetan tximistaorratzen zatiak produzituko dira eta leku horietatik muntatuko diren lekuetara garraiatu egingo dute.

Prozesuan enpresa mota askok parte hartuko dute. Hiru taldetan banatzen dira:

1. taldea: Tximistorratzen zatiak ekoizteaz arduratzen direnak
2. taldea: Garraiatzeaz arduratzen direnak
3. taldea: Tximistaorratzak osatzen dituzten zatiak muntatzeaz arduratzen direnak

-Lehenengo taldeak, lehenengo ezberdinen bitartez, beharrezko piezen ekoizpena aurrera eramango dute. Prozesuaren lehenengo pausua ondo egitea oso garrantzitsua da, tximistorratzen egituraren oinarria delako. Piezak txarto badaude, proiektu guztia bertan behera gera daiteke. Piezak kateko ekoizpenaren bidez ekoiztu egingo ziren, denbora gutxian asko behar izango genituzkeelako. Hurrengo pausuetan ekoizten amaitu diren piezen garraioa egingo da, eta gero tximistorratzen muntaia

-Bigarren taldea, tximistaorratzen parteak ekoizteaz arduratzen diren lantegietatik edo fabriketatik tximistorratzak kokatuko diren lekuetara mugitzean datza. Hau aurrera eramateko, garraio mota asko daude eta enpresa sortzerakoan etekinak lortzen hasteko merkeena aukeratzea egokia izango litzateke, kasu honetan itsasontzia. Garraioa hiru zatitan banatuta egongo da (Enpresa berdina izan arren):

-Bidaiaren lehenengo atalean fabriketatik hurbilen dagoen portura zatiak garraiatzeaz arduratuko da. Normalean, elkarrengandik hurbil egongo dira, kostuak jaisteko eta arazoak ekiditeko (Merkantzia hondatu ez dadin, garaiz hel daitezen, etb...)

-Bigarren atalean portuetatik itsasontzi batean sartuko lituzkete edukiontzi oso handietan. Eragozpenik ez egotekotan, portuen arteko distantziaren arabera 7-14 egun beharko dira batetik bestera mugitzeko

-Hirugarren atalean berriro portuetatik itsasontziaren edukiontzitik atera eta muntatzeko fabriketara eraman beharko dira. Amaitzeko, portuan dagoen hirugarren taldeak hartuko du lekukoa, eta garraioaren zatia amaitutzat emango dira.

-Hirugarren taldea, tximistaorrazak osatzen dituzten zatiak muntatzeaz arduratzen denak, ingeniari espezializatuek osatutako taldea izango da. Produktua, tximistaorrazak, merkeago ateratzeko Txinan edo Zimbawen fabrikatuko dugu, eta hortik kokatu behar diren lekuetara eraman.

Langileak: Gure enpresako langileak fidagarriak izan behar dira eta horretarako langile bereziak beharko ditugu, materiala oso garestia delako eta ez dugulako arazorik nahi. Horregatik haien Currikulumak ondo aztertuko dira norbait kontratatu baino lehen.

Garraioa: Tximistaorrazak garraiatzeko itsasontziz egingo dugu merkeagoa delako. Tximistaorrazak mugitzeko, hauen kantitatea oso handia izango denez, itsasontzi handi bat erabili behar izango da.

Muntaketa: Tximistaorrazak eraikitzeke enpresa espezializatu bat beharko da. Guk erabakiko dugu non eraiki beharko dituzten eta beraien lana bakarrik izango da hauek muntatzea. Arazorik egotekotan, erantzukizuna seguruen enpresaren eta taldearen artean banatuko da.